



LARRIALDI PLANAREN ELKARGUNEA

Larrialdi baten aurrean ikastetxearen ebakuazioa beharrezkoa izan daiteke, bai partziala zein erabatekoa, eta kasu horretan ebakutatutako pertsonak leku zehatz batera bideratu behar dira.

Gure ikastetxeetako Larrialdi Planaren atal garrantzitsu bat **Elkargunea** modu egokian definitzea da.

Elkargunearen eta dagokion ebakuazio-ibilbidearen xedea, honako hau da:

- Ebakuazio-bide segurua eta eraginkorra izatea.
- Leku segurua izatea, langileak eta ikasle guztiak ebakatu diren eta leku hori zein egoeratan dagoen egiaztatzeko.

Elkargunearen kokapena ikastetxe bakoitzak erabakitzen duen arren eta simulazioa egin aurretik aztertua izan behar duen arren, kontuan hartu beharreko zenbait alderdi daude:

- 1) **Leku segurua**, ez soilik aurreikus daitezkeen larrialdien ondorioei dagokienez, baizik eta gune horrek izan ditzakeen beste arrisku batzuei buruz, larrialdiarekin loturarik ez dutenak (adib.: ibilgailuen zirkulazio gunea izatea, urteko zenbait sasaitan sarrera zaila izatea edota okupatuta egotea,...).
- 2) **Espazio seguru nahikoa** izatea ebakutzeko pertsona guztiak kokatu eta egoteko (ez simulazioan ematen diren baldintzetan soilik – jendea zutik zenbaketa bukatu arte- baizik eta espazio zabalagoa behar duten zauritutakoak eramateko lekua ere izan daitekeela kontuan izanik).
- 3) **Kanpoko laguntzak erraz iristeko moduko lekua** izan behar da, hau da, larrialdi zerbitzuak: suhiltzaileak, polizia, anbulantziak e.a.



- Kontuz, bilera guneak ez die oztopatu behar larrialdi gunera kanpoko laguntzei sartzeari.
- 4) Ebakuatu behar diren langile eta ikasleen ohiko kokapenera sartzeko **erraztasuna eta hurbiltasuna** (segurua izateko behar bezain urruti, distantzia luzeak ibiltzea exijitzen dituzten elkarguneak saihestuz, zaurituak edo mugikortasun urriko pertsonak egon baitaitezke).
 - 5) Elkargunera iristeko hobe da **kalea ez gurutzatu behar izatea**. Ebakuazioan pertsonaren bat ikara egoeran baldin badago, gerta dakioke kaletik doazen ibilgailuak ez ikustea eta haietako batek harrapatzea.
 - 6) Elkargunea **ikastetxetik behar bezain urruti egongo da, leherketarik gertatzekotan** honek ebakuatutako pertsonengan eraginik izan ez dezan .
 - 7) Era berean, elkargune horretatik balizko ebakuazioa egiteko bideak izatea, zera gerta baitaiteke: egoera larriagoa izatea eta gune horri eragitea edota larrialdiaren garrantzia ondo baloratuta ez izatea, hasieran segurua zen lekua ez segurua bilakatuz.
 - 8) Gainera, **ikastetxeko langile guztiek non dagoen jakin behar dute**. Praktika on bat elkarguneari argazkia egin eta Larrialdi Planean edota begi-bistako lekuan jartzea da.

FAQ:

1) Bi elkargune desberdin ezar daitezke ala bakarra izan behar da?.

Kontuan hartu behar dena zera da: leku seguruan kokatua egotea eta kanpoko laguntzen jarduera ez oztopatzea, benetako larrialdi egoeran hauek beharrezkoak diren kasuan.

Kopuruari dagokionez, beharrezkotzat jotzen dituzun adina elkargune ezar ditzakezu, baina haien artean komunikazio bide bat dagoela ziurtatu beharko duzu, Larrialdi Planaren ZUZENDARIA (lehen LARRIALDI BURUAK) jende guztia eraikuntzatik kanpo dagoela jakin dezan.

2) Seinaleztapena?

Piktograma zuria atzealde berdearen gainean. Ondoren ikastetxeetan aurki dezakegun zenbait adibide:

